14 ARABA

Purón ibaiaren haitzartea

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

7,7 km

3 ordu

Autoz badago joaterik Lalastraraino San Zadorniletik edo Villafriatik

Udalerria:
Valdegovía/ Gaubea
Hurbileko herria:
Lalastra, Ribera

Ibaia:
Purón

Arrisku faktore bat baino gehiago dago

914 m

114 m

602 m

438 m

Ingurumen-garrantzia

Anderejo mendilerroan bederatziehun eta hirurogeita hamar metrotara jaiotzen den Purón ibaia haraneko ibai-korridorerik inportanteena da eta Ebro ibaian bat egin baino lehen ibilgua aldatzen du Artzena mendilerroko kareharri eta tupen zehar, haitzarte estu bat utzita. Arabako tartea oso-osorik dago 1992an sortutako Valderejo Parke Naturalean. Horrek sai arreen *(Gyps fulvus)* kolonia aberatsa du eta, halaber, zuhaitz mota ugari: erkametzak, arteak, pagoak eta ametzak. Paisaia honetan Purón ibaia da protagonista behinena. Ibaiak ibarreko landaredi oparoa du, kalitate ekologiko handikoa eta anitza: haltzak, lizarrak, sahatsak eta zenbait zumar. Interes handiko hegaztiak ere baditu: sai zuria *(Neophron percnopterus)*, eguzki-arranoa *(Aquila chrisaëtos)*, aztorea *(Accipiter gentilis)*, zapelatz liztorjalea *(Pernis apivorus)* eta urubia *(Strix aluco)*. Bestalde, narrastiak: aspis sugegorria *(Vipera aspis)* edo horma-sugandila *(Podarcis muralis)* ikus daitezke haitzarteetan. Anfibioen artean: arrabioa *(Salamandra salamandra)*, baso-igel gorria *(Rana temporaria)*, uhandre palmatua *(Triturus helveticus)*; ugaztun andana: orkatza *(Capreolus capreolus)*, basurdea *(Sus scrofa)*, basa-katua *(Felis silvestris)* eta lepazuria *(Martes foina)*. Ez dugu ahaztu behar ur garden eta oxigenatuei lotutako biztanle hau: ur-zozoa *(Cinclus cinclus)*. Inondik ere, paisaia, kultura eta ingurumen aldetik interes handiko ibilbidea dugu.



Purón ibaiaren haitzartea

Non dagoen eta nola heldu

Purón ibaiaren haitzartea Arabako Lurralde Historikoaren mendebaldeko muturrean dago, Arabako Ibarrak eskualdean, Gaubea udalerriko Lalastra herriaren ondoan. Valderejo Parke Naturalaren barruan dago, Arabaren eta Burgosen arteko mugan.

Hasiera Lalastra herri arabarretik egin dezakegu A-4338 errepidetik, San Millan de San Zadornil Burgosko herritik hartuta. Horrela lau kilometro gutxiago egingo ditugu.

Erreferentzia puntua Villanueva de Valdegovíatik izango da. Bertatik hasten da abiapuntura eramango gaituen ongi seinalatutako errepidea.

Agian, ibiltaritza zaleen ibai ibilbiderik interesgarriena dugu. Gainera, Euskal Herrian hobekien kontserbatutako ibaia izateaz gain, Artzena mendilerroaren kareharrizko erliebez oragarria eta EAEko ibarrik ederrenetakoa gozatu ahal izango ditugu.

Lalastratik hasita, bertako aparkalekuan utziko dugu ibilgailua elizaren ondoan, eta ondoren Valderejo Parke Naturaleko interpretazio zentrora hurbilduko gara informazio bila.

Bertatik, Errege Kalea pasa, eta landak eta mendi inguruak zeharkatzen dituzten bidexketan hiru koma sei kilometro egin eta gero Erribera herri hustura helduko gara.

Han elizak baino ez dirau zutik.

Jarraitu beharreko bidea ongi seinalaturik dago.

Guk "haitzarte-bideari" jarraituko diogu ibaian ezkerretara harturik.

600 bat metro belardi baten zehar egin eta gero, bidea estutzen den baso batean sartuko gara.

Luze gabe, Purón ibaiko uren hotsak entzunez sartuko gara arroilaren alderik estuenean.

Zortziehun bat metro eta hamabost minutu inguru eginda, haitzetan iltzaturiko pasabide metaliko batera. Bertatik ikus daiteke ibilguko osinetako bat. Berau da interes goreneko ibai tartea.

Aurrerago, egurrezko zubitik arroilaren edertasuna eta magia gozatu ahal izango ditugu.

Izan ere, bertatik pasatzen ziren IX. mendean Gaztelako lautada birpopulatzera joandako lehendabiziko kristauak.

Arroilaren tarterik itxienean, kareharrizko hormatzarren artean, bi kilometroko pista batetik jarraitu ahal dugu Herran herriraino, Burgoseko Tobalina haranean.

Herranera heldu baino lehen, ezkerretara, atseden-eremu bat dugu mahai eta guzti. Ibilbidearen amaiera herriko sarreran dagoen pasabide-zubia izango da.

Toki beretik egingo dugu itzulbidea.

Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia, baina euri sasoian eta elurrak urtzean Purón ibaiak hartzen duen emariak emango digu aukera ur-jauziak gozatzeko, batez ere, Riberaren eta Herran herriaren arteko tartean.

Deskargatu ibilbidea: KML GPX

Ezagutu ibilbide guztiak hemen: Wikiloc

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Purón ibaiaren haitzartea

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA







Purón ibaiaren haitzartea

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA





Purón ibaiaren haitzartea